

Aretxagazeta

OSPAKIZUN UGARI ASTEBURUAN

ZAPATUAN EUSKARAREN EGUNA
ETA DOMEKAN OTALA ZELAIKO ERROMERIA



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Ekoscan agiria Mirvat
enpresarentzat /08**

IKASTAROA

**KZGuneko
egitaraua /09**

LEINTZ GATZAGA

**Sorginak taldearen
azken bidaia /10**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 15
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 16
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruki ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Deiak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:
AOZARATZA
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

EUSKARAREN EGUNA
Loramendi EEk antolatuta Euskararen Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, egun osoan.

OTALA ZELAICO ERROMERIA
Kultura sailak Otala Zelaico erromeria antolatu du domekarako, hilak 16. Hainbat ekitaldi egongo dira Otala Zelaian bertan. Eguraldi txarra egin ez gero, ostera, jaia Iturri-gorri frontoian ospatuko dute.

'EUSKAL HERRIA EUROPA' HITZALDIA
Herritarren Zerrendak hitzaldia egingo du maiatzaren 18an, martitzena, 19:00etan, udaletxeko ganbaran. *Euskal Herria European* lelopean antolatu dute, eta HZko kide-
ren bat hurreratuko da hitzaldia egitera.

ASMAREN GAINEKO HITZALDIA
Krisi berriak nola saihestu azalduko du Karmele Benito del Vallek egunean, hilak 20, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Medikuntzan lizentziaduna da Karmele, psikoterapia, homeopatia eta familia medikuntzan espezializatua.

ERROMESALDIA LOURDESERA
Elizbarrutiak antolatuta Lourdesera erromesaldia egingo dute gaixoei. Aurten maiatzaren 21etik 24ra bitartean egingo dute. Eguneko erromesaldia, ostera, maiatzaren 22an izango da.

LORAMENDIREN AGENDA


MATXINEN BAKARRIZKETA
Matxinek bakarrizketa umoretsua eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:30ean, Ezkutu tabernan.

LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA
Loramendi EEk lan poltza osatu gura du epe laburrera egingo duten hautaketa prozesurako. Curriculumak Durana 11ko lokalera ekarri maiatzaren 30a baino lehen.

ORAINDELA 10URTE ARETXABALETAN

Hitzarmena sinatu zuten Loramendik eta Udalak

Gizarte sektoreak euskalduntzeko asmoarekin hitzarmena sinatu zuten Udalak eta Loramendi EEK 1994ko maiatzean. Euskararen normalizazio prozesuan beste urrats bat eman gura izan zuten, eta urtebeterako sinatu zuten. Aurrera eramateko ardura Jon Zuazabeitiak hartu zuen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Bolo-bolo"

— *Bolo-bolo dabil herrixan droga asuntuan sartuta dagona.*



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Sarah Corres
4an, 4 urte. Berandu bada ere, zorionak, maitia, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Itziar Aperribai
7an, 12 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko eta lagun partetik.



ARETXABALETA
Beñat Etxabe
12an, 13 urte. Mila kilo zorion eta tona bat muxu. Koadrilako neskak.



ESKORIATZA
Oihan Calero
13an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



LEINTZ GATZAGA
Ander Arana
14an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Aitziber Eraña
15ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ander Antxia
17an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu eta DVD berriak

- Liburu berrien zerrenda.**
- 'Pétalo carmesí, flor blanca' / Michel Faber
 - 'El cuerpo' / Hanif Kureishi
 - 'Ensayo sobre la lucidez' / José Saramago
 - 'Con lo puesto' / Alan Bennett
 - 'La puerta del Pacífico' / Alberto Vázquez-Figueroa
 - 'Nada es casual' / Margarida Rebelo Pinto
 - 'Pisando los talones' / Henning Mankell
 - 'Tartessos' / Jesús Maeso de la Torre
 - 'El último deseo' / Andrzej Sapkowski
 - 'La espada del destino' / Andrzej Sapkowski
- DVD berrien zerrenda.**
- 'Mundo grua' / Pablo Trapero
 - 'La vida es silvar' / Fernando Pérez
 - 'La vendedora de rosas' / Victor Gaviria
 - 'La ley de Herodes' / Luis Estrada
 - 'Buffalo '66' / Vincent Gallo
 - 'Adios tierra firme' / Otari Iosseliani
 - 'Tedio' / Cédric Kahn

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

Lie

LURRINGEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱


Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

ATREBENTZIAEZPADA/ Herriko gazteek talde osatu daue ekintzak antolaketako. Ze pentsetan jatzu?



JON IÑAKI LARRABE
Langillie




FATIMA DACOSTA
Langillie



ASIER VALLE
Lanbakue



LEIRE SPRURS
Ikaslie



ODEI OION
Ikaslie



ESTHER FERNANDEZ
Langillie eta ikaslie

Idea ona dala; Udalak ez badau ezer antolaketan, ondo dau eurak batu eta zozetan hastie. Eurek ikusiko daue ze igerten dauen faltan; hala eta be, Udalan laguntzie biherko daue, ez?

Ondo; uste dot ez daukiela ez egoteko leku egokirik, ez eurentako ekintzarik; hortan, ondo. Neuk edade horretako semie dauket, eta askotan kanpora urten biherko dauko zozter egitteko.

Ondo, neu be taldeen nau eta. Herriko gazte asko batu gare, eta leku bat gureko geuke elkartu eta kontzertuek egitteko, adibidez. Jaixetan parte hartzeko asmue be badaukou.

Ba ez naz aretxabaletarra, baiñe ondo pentsetan jat. Uste dot hamen ez dauketzuela gauza haundirik gaztiendako, eta zozter antolaketan hastie ondo dauela uste dot.

Ondo. Ni neu ez naz egon batzarretan, baiñe lagunek esanda enteraute nau. Egi xe esateko, ez dau gauza haundirik gure herrixen gaztiendako, eta ondo pentsetan jat mobiduten hastie.

Edarto, gaztiendako zozter egon dain herrixen oso ondo pentsetan jat. Azkenaldixen ez dau ezer be, ez jairik, ez jenterik; izen be, aste bukaeretan ez da inor geraketan gure herrixen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EDUKIONTZIAK LEKUZ KANPO Behin baino gehiagotan aipatu ditugu edukiontzia, baina lekuz kanpo utziz gero traba handia egiten dute. Espaloia zabala bada, tira, baina espaloietan ezin pasatuta ibiltzen dira gurgildun aulkian doazenak eta ume kotxearekin doazenak. Errepidera atera behar izaten dute sarri. Ea, bada, bere lekuan uzteko ahalegintxoia egiten duten. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

AGE aurkeztu dute

Herriko hainbat gazte elkartu, lanean hasi eta Aretxabaletako Gazte Ekimena taldea sortu dute.

ASTEAN BEHIN /05

Asteburuko ospakizunak

Euskararen Eguna bihar, zapatua, eta Ojala Zelaiko erromeria domekan; asteburua ekitaldiz gainezka.

KIROLAK /06

UDAK batzorde berria du

UDA kirol elkarteak dagoeneko badu zuzendaritza batzorde berria. Oraingo bost lagun dabilta.

ASTEKODATUA

270

SINADURA JASO DITU HERRITARREN ZERRENDAK

Zapatuan izan zen azken eguna Herritarren Zerrendaren alde sinatzeko. 20 bat lagun hurreratu ziren orduan, eta aurreko egunetakoekin bat eginda 270 aretxabaletarrek sinatu dute guztira.


BESTEKEESANA

“ Nik ere, estualdi honetan, hemen zaudeten guztioi, eskerrak emanaz ekitea gertatzen zait ateraldirik erosoena, lasaiena. Hala beharko du izan usadioz. Baina esaten denez baita ere, Merezi ez duen zaldia bi pentsu, bada, gaur ematen didazuen ohoreaz, bi pentsutik gora, sobera, gainez egin duzuela ikusiz, ordez nik ere berriz, nire bozkariozko sentipena agertu nahi dizue bene-benetan. Mila esker guztioi.

Benetan estimatzen dut Nafarroako presidentea ekitaldi honetan egotea. Omenaldian parte hartzera bakarrik ez dela etorri sinistu gura dut, Nafarroako bide estuak euskararendako autopista zabal bihurtu gura dituen borondatea duela baizik.

JESUS ATXA
‘El Diario Vasco’/04-05-09

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



Berba eitteko prest?

Zubillagako hiltegia itxiko dutela?... kanpoko dantzari helduek egun bikaina eskaini ziotela Aretxabaletako ormei?...

euskararen egunerako batukada ikastarokoek musika tresnak eskuratuko dituztela batukada saioa eskaintzeko?... antzerki zaleok berrito ere Andramaixetan ikusitakoa ikusi beharko dugula?... gaztetxoek gurasooi iritzia eskatzen ditugula?... Badugu bai zertan pentsa!

Galdera guztiek erantzun berdina dute: BAI edo EZ. Erantzun hotza, burokratiko, protagonistak aintzat hartzen ez dituen, ordutegiaren esklabutza adierazten dutenak, derrigorrez erantzun beharrekoak...

Gizakiak, baditu orratio zenbakiz kuantifikatu ezin diren erantzunak: sentimenduak, gogoak, ilusioak, emozioak... baitaude tardean. Nola konturatu horrekin? Nola azaleratu...

Astirik ez dudala seme-alabekin egoteko? Etxekoei

arreta gehiago eskaintzeko? Guraso izanik seme-alaben ikastetxera hurbildu eta inplikatzeko? Herriko elkarteetara emateko?

Galdera hauen erantzuna bai edo ez izateaz gain angustia da, larritasuna, ondoeza... eten-gabe inori errua botatzean estalita.

Egunerokoari aurre egiten ez diogun denbora gabekian ezkutatu ez gaude gustura, ez gara zoriontsu, sentazio horrek benetan urrundu egiten baikaitu gu geu bizi garen gizartetik. Bakardadearen isolamendua dakar.

Gaur egun, lanean, erakundeetan eta elkarteetan, plangintzak egiteari erabakiak hartzeari baino denbora gehiago eskaintzen zaio: inkestak egin, kuantifikatu, txostenak egin, biltzarrak...

Non dago koska orduan? Benetako protagonistekin komunikatzeko, berba eitteko guneak sortzeko, protagonistekin erabakiak hartzeko, protagonistekin ondorioak asumitzean. Orduan, berba eitteko prest?

“Sentimenduak, gogoak, ilusioak, emozioak... ezin dira kuantifikatu”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube
ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal
MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZTATEA
Ziortza Martin
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94
ISSN
1134-2609
TIRADA
2.700 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



M. J. Aretxaga

Gaztien kontuek

Gaztien kezkatute dabitza, eta talde baten batzietan daude. Señale ona dala esango neuke, herrixen mugimenduek dauen señale. Horrek, gerora begire be, herriko elkartietan parte hartzeko gertu dazen herritarrek sortuko dituzela pentsau gure dot. Izen be, azken urtietan, larri dabitza herriko elkartiek. Igual dutzo kirol elkartie izen edo kultura elkartie, baiñe ordezkorik ez dauela gertu lan egiteko. Eta horrek jente iguela ibiltie leku guztietan dakar. Batzuk gogaitute egongo die beti aurpegi berberak ikusten, baiñe baten bat dauenien be pozik egon biher. Bestela esan deixuela UDAko zuzendaritza batzordeko kidiei.

Aste bukaeran daukie gaztien lanien hasteko lehenengo aukerie; izen be, jai bat baiño gehixau daukou: zapatuen, Euskararen Eguna, eta domekan Ojala Zelaiko erromerixie. Derrigorrez hartu biher dou parte herritarrok ospakizun bixetan bestela jaiak jai hartuko dauie. Ia egualdixek lagunketan duskun, aspaldixen udabarrixen biherrien neguen gazela emuten dau-eta.

Hortaz, badakitxue, *eitako prest* bagaz urten daigun danok kalera eta sortu daigun jai girue; hori bai, beti, beti euskaraz, ehh!!

OSOKO BILKURA/ Aralarko zinegotzi bat, EAJko beste bat eta PSOE-EEkoa izan ezik, gainerako guztiak elkartu ziren

Etxebizitza sozialak egiteko urbanizazio lanekin hasia onartu zuten asteleheneko osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE

Ohiko osoko bilkura egin zuen astelehenean, hilak 10, udalbatzak. Hirigintza gaiak izan ziren nagusi, baina animaliak edukitzea arautzen duen Udal ordenantza eta ordenantza fiskalen aldaketak ere eztabaidatu zituzten. Gai guztiak aho batez onartu zituzten.

Hirigintza Saileko hiru gai eztabaidatu zituzten astelehenean udalbatzak, tartean, Tubos lantegiaren atzean Eusko Jaurlaritzak egin behar dituen etxebizitza sozialak.

ETXEBIZITZA SOZIALAK, LASTER

Aretxabaletako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak 2000ko irailean sinatu zuten hitzarmena 20 etxebizitza sozial egiteko Tubos lantegiaren ostean. Orduan urbanizazio proiektua Udalaren ardura izango zela adostu zuten, eta lan horiekin hasia onartu zuten astelehenean. Lan horiek bukatzen dituztenean etxebizitzak egiten hasiko da Eusko Jaurlaritza.

Errekaren ostean egin gura dituzten etxebizitzetarako dagokienez, arau subsidiarioen aldaketan behin-behineko onarpena egon da ikusgai orain arte. Alegazio bi



Jose Mari Segovia Udaleko Hirigintza teknikariaren eskutik jaso zuten Hirigintza Saileko gaien inguruko informazioa.

aurkeztu dizkiote, eta Udalak alegazio horiei erantzutea erabaki zuen. Errotetxeren ostean egiteko diren industrialdearen proiektu

tuan, bestalde, aldaketak egin zituzten, Aldundiak eskatuta. Orain, berriz aurkeztuko diote Aldundiari, oniritzia eman dezan. Hiru

gai horiez gain, animaliak edukitzea arautzen duen Udal ordenantza eta ordenantza fiskalen aldaketak onartu zituzten.

Aretxabaletako Gazte Ekimena taldea sortu dute gazteek

M.A.

Astelehenean, hilak 10, egin zuen aurkezpena Aretxabaletako Gazte Ekimenak. 40 bat lagun egon ziren aurkezpenean, eta taldea zabalik dagoela esan zuten. Batetik, aisialdi alternatiboa antolatzeko asmoa dute, eta bestetik, jaiak indartu gura dituzte.

Kezka batek batu ditu herriko gazte hauek guztiak: gazteei zuzendutako oso ekitaldi gutxi antolatzen dituztela Aretxabaletan. Horri erantzuna eman guran,

antolatu eta lanean jartzea erabaki zuten. Hala, Aretxabaletako Gazte Ekimena, AGE, sortu dute. Taldea hileroko batzen da, azken egubakoitzean, eta zabalik dago.

JAIK INDARTZEKO ASMOA

Aisialdi alternatiboa antolatu gura dute: kontzertuak, ikastaroak, tailerrak... antolatu. Era berean, herrian egiten diren jaiak indartu egin gura dituzte, eta horretarako jai batzordean parte hartzeko konpromisoa hartu dute. Ez hori bakarrik, jaietan era aktiboan hartuko dutela parte gaineratu dute.



Herriko hainbat gazte elkartu eta Aretxabaletako Gazte Ekimena sortu dute.


PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- HaziakMitarre 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Aretz

taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETAJauregi
OkindegiaOtalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETAMAPFRE
AseguroakErrekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

PAGALDAI

Opari denda
BurrindegiaDurana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

JAIAK/ Bai Euskararen Eguna bai Otala Zelaiko erromeriak arrakasta izan dezaten, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango da

Jai giroa izango dugu nagusi aste bukaeran, Euskararen eta Otala Zelaiko egunekin

M.A.

Ospakizunez beteta datorkigu aste bukaera: bihar, zapatua, Euskararen Eguna egingo du Loramendi EEK eta domekan, Otala Zelaira erromeria, Kultura Sailak deituta. Eguraldiak laguntzen badu, giro polita sortuko dute herritarrek batean zein bestean.

Udaberriarekin batera jaiak hasten dira herrietan, eta gurean hainbat ospakizun ditugu aste bukaeran. Herritarrek giroa dituzte biak, eta eguraldiaren laguntzarekin jai giro polita sortuko da.

BIHAR, EUSKARAREN EGUNA

Kanpai hotsek emango diote Euskararen Egunari ongietorria bihar. Parrokiako kanpaiak joko ditu Joxe Olabek, eta hainbat doinu entzungo dituzte herritarrek. Bitartean, marrazkiak egin eta aurpegia margotzeko aukera izango dute ume eta gaztetxoek plazan, Ludotekako eta Kuadrillategiko ordezkarien laguntzarekin.

Herriko trikitilariak giroa

dituzte kaleak 12:30ean, eta Mitarte kalean gazta dastatzea egingo dute; inguruko baserrietatik ekarritako gaztak probatzeko aukera izango dute aretxabaletarrek.

Ohiturari jarraituz, babarrunjana egongo da plazan eguerdian. Uratz Alde, Muru Alde, Urbaltz eta Batzoki elkarteek gertatuko dizkiete babarrunak herritarrei. Bazkalostea, berriz, Aretxabaletako artistek giroa dituzte, ezusteko galantarekin giroa ere. Arratsalde partean perkusio joleak, gaitariak eta umeendako kale animazioa izango ditugu, eta eguna bukatzeko txaranga ibiliko da kalean gora eta behera.

DOMEKAN, OTALA ZELAICO ERROMERIA

Ohiturari jarraituz, Otala Zelaiko erromeria antolatu du Kultura Sailak maiatzeko hirugarren domekarako. Aurten, gainera, herri krosa ere bertatik aterako da, 11:00etan. Hori bai, eguraldi txarra eginez gero erromeria Iturrigorri frontoian ospatuko dute.

Urtero moduan, Gorriti etorriko da animaliekin, umeek pottoka, txerrikume, oilar eta bigantekin jolas egin dezaten. 13:00etan



Ume eta gaztetxoek topaleku izaten da Otala Zelai eguna, eta eguraldiak laguntzen badu, behintzat, ederto pasatuko dute.

paella txapelketa hasiko da; antolatzaileek oinarritzko osagaiak emango dizkiete eta gainerakoak parte-hartzaileek eraman beharko dituzte. Antolatzaileek, gaine-

ra, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte herri bazkarirako, eta jatekoa norberak eraman beharko du. Bazkalostean, bestalde, jolasak eta tailerrak egongo dira ume eta

gaztetxoendako, baita dantzaldia ere, Txinparta taldearekin. Eta azkenik, eguna bukatzeko, Loramendi dantza taldeak saioa eskainiko die gerturatutako guztiei.

EHNA erabiltzera animatu gura dituzte herritarrak, 'Egin, erabili eta bizi' lelopean

M.A.

Abendu inguruan hasi ziren EHNA tramitatzen herrian. Orduetik hona 400 bat aretxabaletarrek izango dute agiria esku artean, eta orain erabiltzera animatu gura ditu Bai Euskal Herriari taldeak. Horretarako, EHNA egin, erabili eta bizi kanpaina jarri du abian.

Orain dela hilabete batzuk, abendu inguruan, EHNA tramitatze-ko kanpaina egin zuen Bai Euskal Herriari taldeak. Erantzun hona jaso zuen herritarrengandik, eta ordukoa gogoan, orain, erabilera bultzatu gura du.

ELKARTEEN ATXIKIMENDUA

Azaroan sortu zuten Bai Euskal Herriari taldea Aretxabaletan. EHNA tramitatzen hastea eta bultzatzea zuen helburu, eta lehen pausoa herriko elkarten atxikimendua lortzea izan zen. 20 bat taldek eta elkarteak eman zioten babesa orduan, eta 340 agiri tramitatu zituzten urtea bukatu baino lehen. Orduetik hona, ostera, 400 bat herritarrek izango dute naziotasun aitormenaren agiria, eta oraindik ere



Abenduan egin zuten EHNA egunean, 340 bat lagunek tramitatu zuen agiria.

badago egiteko aukera. Udaltzeko harreraren daude bete beharreko paperak eta udaletxean

bertan ematen duten errolda agiria, hiru argazki eta 15 euro berriz ez da eroan behar. 14 urte-

tik beherakoek familia liburua kopia behar dute. Hori egin da, bi hilabeteren buruan etxera bidaltzen dituzte agiriok.

ERABILI BEHARRA

EHNA tramitatzea, baina, ez da nahikoa. Euskal Herritarrak garen aldetik naziotasunean aurrerapausoak ematen hasteko garaia dela diote Bai Euskal Herriari taldeko kideek. Hori horrela, orain, erabiltzera bultzatu gura dituzte herritarrak, eta EHNA egin, erabili eta bizi kanpaina jarriko dute abian datozen egunotan. Batetik, EHNA oraindik ez dutenak animatu gura dituzte, eta bestetik, erabileraren gainera informazioa emango dute. Aretxabaletan, udaletxean egin behar diren tramitatzeko lanetan eta azpiegitura publiko guztietan dago ziurtatuta erabilera. Horrez gain, dendetan, jatetxeetan, banke-teen eta ikastetxeetan ere erabili ahal izango da hemendik aurrera.

Bai Euskal Herriari taldeak, gainera, gazteei zuzendutako kanpaina berezia egingo du. Gazteekin jarriko da harremanetan, informatu eta animatzeko.

LABUR

Hauteskunde mahaietarako hautaketa izango da

Astelehenean, hilak 17, egingo du Arrixu Oliden alkateak ekaineko hauteskundean mahaietan egon beharko duten herritarren hautaketa. Udalbatzak egin izan du hori, baina oraingoraino alkatearen eskuetan utzi du ardura, eta idazkariarekin batera, 63 lagun aukeratu dituzte mahaietan egoteko.

Herritarren Zerrendak hitzaldia egingo du

Herritarren Zerrendak, Europako hauteskundean Euskal Herria nazio gisa aurkeztea babesten duen taldeak, hitzaldia egingo du maiatzaren 18an, martitzena, 19:00etan, udaletxearen ganbaran. Euskal Herria Europan lelopean antolatu dute aipatutako hitzaldia, eta ekainaren 13an egingo diren hauteskundeei begira egingo dute ekitaldia. HZko kideren bat hurreratuko da hitzaldia egingera.

UDA

Zuzendaritza batzorde berria aurkeztu zuen UDA kirol elkarteak

Oraingoz bost kide daude, baina zabalik dago batzordea, eta 12 bat lagun gurako lituzkete

M.A.

Joan zen astean egin zuen UDA kirol elkarteak batzarra, eta zuzendaritza batzorde berria aurkeztu zuten. Bost kide daude oraingoz, baina UDA osatzen duten talde guztietako ordezkariak gura dituzte batzordean. Egokiena 12 bat lagunek osatzea litzatekeela esan zuten.

Kosta egin zaio zuzendaritza batzorde berria osatzea UDARI, baina azkenean lortu du. Orain arte izan duen lan egiteko erari jarraituko diola esan zuten, gainera.

PRESIDENTEA: JOKIN ANTIXIA

Hona hemen UDAREN zuzendaritza batzorde berria: Jokin Antxia izango da presidentea, Anjel Mari Etxabe presidenteordea, Anjel Zubillaga diruzaina, Agurtzane Elkoro idazkaria eta Jabier Mar oinarri-futbolaren ordezkaria. Batzordea, baina, ez dago itxita, eta Jokinen esanetan, pilota eta txirrindularitza taldeetako ordezkariak, futboleko preferente mailako eta nesken taldeko ordezkariak, eskola kiroleko



Joan zen asteko batzarrean 20 bat bazkide elkartu ziren, baina gazterik ez.

arduradunak eta beste bazkide pare bat gurako lituzkete.

Lan egiteko erari dagokionez, orain arte egindakoari jarraipena emango diote. Hala ere, futboleko maila bakoitzean talde bi egotea komeniko litzatekeela esan zuten, gazte guztiek joka dezaten.

Arazoak dituzten txirrindularitza eta pilota taldeak indartzeko asmoa ere badute, eta eskola kiroleko arduradunekin lankidetzan jarraitzea dute helburu. Hemen-dik gutxira, gainera, kirol instalazioen gaineko hitzarmena sinatuko du Udalarekin.

FOTOKIROLA



Peña Hugo nagusi futbito txapelketan

Zapatuan jokatu zuten Arlutz Futbito Txapelketako finala. Hain zuzen, Kemen eta Peña Hugo taldeak izan ziren aurrez aurre. Kemenek egin zuen lehen gola, baina segituan berdindu zuen Peña Hugok. Horren ostean, Peña Hugok bigarren gola egin zuen, eta hura izan ziren jaun eta jabe partidu osoan. Hala, Peña Hugok 10-2 irabazi zion Kemeni, me-rezita irabazi ere. Horrela, bada, iazko txapelkunak oraingoz ez dauka aurkaririk. /M.A.

KROSA

Otala Zelaitik aterako dira domekan jokatu den 26. Otala Zelaiko krosetako korrikalariak

Aurten Otala Zelaiko egunean bertan egingo dute Otala Zelaiko kroseta, hau da, oraingo domekan. Irteera eta helmuga, gainera, zelaian bertan izango ditu, eta horrek luza egin du ibilbidea, bi kilometro inguru. Gaztetxoek probak 10:00etan hasiko dira, eta adinari egokitutako ibilbideak izango dituzte. Gainerakoak 11:00etan hasiko dira, eta gazteek, emakumeek eta beteteranoek buelta bakarria emango diote Urkuluko urtegiari. Gizonezko seniorrek, ostera, bi buelta emango dizkiote. Lasterketan parte hartzeko izenematea Otala Zelaian egin behar da, probak hasi baino ordu eta erdi lehenago, bost euro ordainduta.

TRIALSINA

Markel Uriarte aretxabaletarraren gaineko berriak dakartza 'euskaltrial.com' webguneak

Trialsinean ibiltzen den Markel Uriarte larrinoarraren berriak agertzen dira Interneten. *Euskaltrial.com* webgunean daude: bate-tik, Markeli egindako elkarrizketa eta bestetik, argazki sorta. Izan ere, Markel oso ondo dabil trialsinean: infantil mailako Gipuzkoako txapelduna da, 2002an alebin mailakoa izan zen eta 2003an bigarren postuan geratu zen. Euskadiko txapelketan ere bi aldiz geratu da bigarren, eta beste horrenbeste Zona Norte izena duen txapelketan. Hurrengo zapatuan, maiatzak 22, bestalde, Euskadiko txapelketako 2. proba izango du Irunen.

FUTBOLA

Azken lau partiduetan berdindu egin du preferenteko taldeak, eta laugarren dago

Aurtengo denboraldia bukatzeko hiru partidu besterik ez zaizkie falta preferentean jokatu duten taldeei. UDako taldeak azken lau partiduetan berdindu egin ditu, azkena domekan Hernaniren kontra, eta sailkapeneko laugarren postuan dago 54 punturekin. Mondra taldea dator kio atzetik hau ere 54 punturekin, hortaz, denboraldi bukaera polita izango dugu. Hurrengo domekan, maiatzak 16, Zestoara joango da jokatzera, 14. postuan dago hori; aretxabaletarrak nagusi izan beharko lirateke zelaian baina ikusi egin behar zela jokatu duten. Domekan izango da partidua, Zestoako futbol zelaian, 17:00etan hasita.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Zestoa-UDA

Preferentea.

Domeka. 17:00. Zestoa.

UDA/Almen-Lengokoak

Lehenengo mailako gazteak.

Zapatua. 12:00. Ibarra.

UDA/Almen-Aierri

Lehenengo mailako kadeteak.

Zapatua. 10:00. Ibarra.

PILOTA

Sopela-Errasti anaiak

Seniorrak.

Domeka. 13:00. Sopela.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 2 Hernani 2

Preferentea.

UDA 4 Urola 3

Ohorezko gazteak.

Urola 2 UDA 2

Lehenengo mailako gazteak.

Pasajes 0 UDA/Almen 1

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 3 Axular 1

Bigarren mailako kadeteak.

UDA 4 Tolosa 3

Ohorezko infantilak.

Almen/UDA 4 Ilintxa 0

Emakumezkoen kopa.

Almen/UDA 12 Touring 0

Futbol 8 kopa.

PILOTA

Debarroko Pilota Txapelketa.

Aloña Mendi 14-Aretxab. 22

Seniorrak.

Udaberri Pilota Txapelketa.

Oberena 22-Aretxab. 8

Seniorrak.

JAUSQO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Aretxagazeta

**Mobiliario
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Lasai

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
 - Kraneala
 - Estrukturala
 - Funtzionala
- Lotura muskularrak

**Mirian Manteca
masajista**

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

ERRETRATUZAHARRA

Orain bezala, orduan ere dantzariak Otala Zelain

Domekan Otala Zelai eguna ospatuko dugu. Aspaldiko jaia da. Garai baten erromeria izaten zen bertan, eta oraindik ere ospatzen jarraitzen dugu aretxabaletarrok. Sarri eztabaidatu izan dute herritarrek maiatzeko bigarren edo hirugarren domekan ospatzen ote zuten lehen. Jose Benito Aiastuiren esanetan, lehen, Santo Domingo eguna zen ospatzen zutena, maiatzaren 12an, hain zuzen, eta horren arabera antolatzen zuten jaia; hau da, astegunean izanez gero domekara pasatzen zuten, eta batzuetan bigarren domeka izaten zen, eta hurrengoan hirugarrena. Eguraldi txarraren erruz erromeria atzeratu izana ere gogoan du Jose Benitok.

Udalbatzak, orain bezala, ibilalditxoa egiten zuen auzoko pinudiak eta mugak ikusteko, eta horren ostean, Matikua jatetxera joaten ziren bazkaltzera.

Erromeria guztietan bezala musika egoten zen, eta inguruko herri eta auzoetatik ere etortzen zen jendea. "Urte batzuetan Aretxabaletako Banda ere joan izan zen jotzera; gainerakoan, filarmoinikoa egon ohi zen", dio Jose Benitok. Herriko dantzariak ere joaten ziren orain bezala.

Argazkian agertzen diren dantzariak honako hauek dira, aurretik atzera: Juan Antonio Iturbe, Remigio Gastañaga, Jose Antonio Arenaza eta Luis Mari Zubizarreta.

Informazioa: Jose Benito Aiastui



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Otalora kalearen gorabeherak

Haziz joan da Aretxabaleta, eta garbi ikusten da hori argazkietan. Herriaren sarrera daukagu lehenengoan —halaxe esaten du etxearen horman dagoen kartelak ere— eta hortik eta Santutxuraino Kamineroko etxea bakarrik zegoen. Orduetik hona etxe asko egin dituzte Otalora kalean; kuartela izandakoa ere hor daukagu oraindik herriaren sarreran.



≈ 1940

Argazkian dagoen lehenengo etxea antzerkiak egiteko erabiltzen zuten sarri, eta zinema ere garai baten bertan egon zen.



2004

1976. urte inguruan bota zuten herri sarreran zegoen etxe hura, eta gaur egun Murubide kaleko etxeak daude bertan eraikita.

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA


BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Markoztatzea



Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 14a / 166. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Mirvat enpresak Ekoscan ziurtagiria jaso du, ingurumena zaintzen laguntzeagatik

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek ingurumena zaintzen dutela ziurtatzen duen agiria ematen du IHOBEk. Eta Eskoriatzako Mirvat enpresari eman berri diote agiria. Kooperatibak duen arazketa instalazioak lan hori egiten laguntzen du, kutsadura murriztuz.

Eskoriatzako Mirvat enpresak IHOBE elkarte anonimoak ematen duen Ekoscan ziurtagiria jaso du; ingurumena ahalik eta gehien errespetatzen saiatzen delako.

INGURUMENA ZAINDUZ

Mirvat S. Coop. 1981ean sortu zen. Estaldura elektrolitikoak egiten dituzte bertan. Aingeru Guarda pasealekuko kooperatibak ingurumena zaintzeko helburuarekin arazketa instalazioa eraiki zuen. Hala, estaldura elektrolitikoak egiteak dakarren kutsadura murrizten dute.

Horregatik eman diete Ekoscan ziurtagiria; alegia, "ingurumenari ahalik eta kalte txikien egiteko bideak jartzen dituztelako". Hala adierazi digute Mirvat enpresak ordezkariek.



Eskoriatzako Mirvat enpresak ingurumena zaintzen duela adierazten duen ziurtagiria jaso du.

EKOSCAN ARAUA

IHOBE saiatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek ingurumen presioak eta inpaktuak txiki ditzaten. Horretarako, era-

gile pribatuak informatu, sentibilizatu eta abian jarritako proiektuak betetzera bultzatzen ditu.

IHOBEren 2004ko Ekoscan Arauak ingurumena hobetzea du

helburu. Arau pribatua da, eta hori betetzen duten enpresei urtero egiten zaie ikuskaritza, ingurumen kontuetan hobekuntzak izan diren ziurtatzeko.

Urtero egiten dira ikuskaritzak; ziurtagiriek urtebeteko balioa izaten dute

Ziurtagiria berritu ahal izateko, ikuskaritza gainditzea beharrezkoa da

Ingurumen kontuetan hobekuntzak lortzea da IHOBEren helburua



Jende asko elkartu zen San Juan Txiki eguna ospatzeko

Zapatuan, San Juan Txiki ermitaren eguna ospatu zuten 80 lagun inguruk. Meza entzuteko aukera izan zuten ermitara bertaratuak. Ondoren, salda eta txorixoa hartu eta trikiti doinuekin guztiek batera giro alaian goiz-pasa egin zuten. Hasieran zalan-tzan egon ziren ospakizuna non egin: Mendiolako elizan edo San Juan Txiki ermitaren inguruan. Baina azkenean goian egitea erabaki zuten, eta esan daiteke eguraldiak ez ziela hutsik egin.

LABUR

Azurmendi eta Sarasuaren hitzaldi-elkarrizketa

Meditazioa modernitatearen heriotzaz hitzaldi-elkarrizketa izan zen eguenean, hilak 6, Eskoriatzako fakultatean. Berez, martxoaren 11n egin behar zen ekimena; hala ere, Madrilgo gertaerengatik atzeratzea erabaki zuten. Joxe Azurmendi filosofo eta idazleak eta Jon Sarasua irakasle eta idazleak hartu zuten parte bertan. Literatura astearren ardatza Kant izan zen; eguenean hainbat gai landu zituzten —gizartea, filosofia, modernitate...— eta puntuka aritu.

TOKIA DAGO ORAINDIK MAIATZEKO IKASTAROAN PARTE HARTZEKO

KZGuneak Internet erabiltzen ikasteko eskolak ematen ditu

Z.V.M.

Hilabete honetarako, Eskoriatzako KZGunean Interneti buruzko oinarritzko ikastaroak antolatu dituzte, eta bi zatitan banatu. Hala, lehenengoa maiatzaren 3an hasi zen eta gaur, egubakoitza, amaitu da.

Lau lagun aritu dira kultura etxean dagoen KZGunean Interneti buruzko euskarazko eskolak hartzen. 09:00etatik 11:00etara elkartu dira, egunero, Oihana irakasle zutelana.

Bigarren saioa hilaren 17an, astelehenean, hasiko da, eta maiatzaren 28an emango zaio amaiera. Oraindik badago izena emateko aukera. Egunero emango dira eskolak, eta bertan, Word programa erabiltzen ikasiko dute ikasleek, eta webguneak ezagutzen, bilatzaileak, e-posta erabiltzen, eta abar.

Aurretik beste ikastaro batzuk eman dira KZGunean. Horiatariko bat Kutxarena izan zen. Oihanaren esanetan, orain arte arrakasta handien izan duena da. Bertan ikasi zuten banku-

“KZGuneako zerbitzua aprobetxatu dezaten animatu nahi ditut eskoriatzarrak”


ko kontuak sarearen bidez egiten, akzioak erosten, saltzen, zein egoeratan dauden ikusten...

Beti egin da talderen bat edo beste KZGunean. Hala ere, jende gehiago animatzea gura du arduradunak. “Jendeak badaki herrian zerbitzu hau dagoela, bai-na asko ez dira ausartzen”.

URTEBETE ESKORIATZAKO KZGUNEAK

Eskoriatzako KZGunea 2003ko maiatzaren 30ean ireki zuten. 157 erabiltzaile ditu erregistratuta. Ireki zenetik, hainbat eskola eman dira bertan.

Internet erabiltzen eta sarean nabigatzen doan ikasteko beharrezko instalazioak dituen zentro



Ikasle bakoitzak ordenagailu bat du eskolak hartzeko.

publikoa da. Guneak hainbat zerbitzu ematen dizkio erabiltzaileari. Batetik, 10-20 orduko prestakuntza ikastaroak; bestetik, sareari buruzko ikastaro aurreratuak

eta mintegi zehatzak; eta azkenik, ikastaroan dabilatzane laguntzeko tutoreak. Erabiltzaile bakoitzak ordenagailu bat eta posta elektronikoko kontu bat du.

TELEFONJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirrol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

UDABERRIKO KONTZERTUA

Musika Eskolako Bandak *Udaberriko kontzertua* eskainiko du domekan. Herriko plazan izango da, 13:00etan.

GURASO ESKOLA

Martitzenean, kultura etxean, Guraso Eskolaren hitzaldia izango da. Maite Garcia psikologoa *Familiaren eskubideak* gaiari buruz mintzatuko da.

HITZALDIA

Maiatzaren 19an, hitzaldia egingo dute 19:00etan kultura etxean. Euskal Herria Europan zergatik egon behar den izango da jorratuko duten gaia.

AXTOKIRENAGENDA

BATZAR OROKORRA

Axtroki Euskara Elkarateak urteko batzar orokorra egingo du maiatzaren 21ean, egubakoitza. Kultura etxean bilduko dira, egubakoitzean, 19:00etan.



Arizmendik kultura astea ospatu zuen

Joan den astean, Arizmendi ikastolak kultura astea ospatu zuen. Askotariko jarduerak egin zituzten ikasleek gune guztietan. Aurten, garapen iraunkorra izan da gai nagusia. Horren harira, Almen gunean, esate baterako, DBHko lehenengo ziklokoek asteko gaiaren inguruko collage erraldoia egin zuten. Bestalde, gune horretan urteroko ohitura den moduan, Torrebasora igo ziren. Ederto pasa zuten Arizmendiko ikasleek.

LABUR


Diploma banaketa egin dute gaur HUHEZIn

Humanitateak-Enpresa ikasketak amaituko dituzten laugarren promozioiko ikasleek diploma jaso dute gaur. Eskoriatzako Fakultatearen erai-kin klasikoaren klaustroan egin dute ekitaldia. Ikasleek, haien familiartekoei, irakasleek eta unibertsitateko agintari-entzuten hartu dute parte. Guztira, 66 lagunek jaso dute diploma. Eta lana errazago topa dezaten, diploma jaso dutenen curriculumak Euskal Herriko mila enpresatarari bidaliko ditu HUHEZIK.


LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA




Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63



DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

EMAKUME TALDEA GAZTELA ETA LEON ALDEAN EGON DA

Emakume taldeak askaria antolatu du, Leongo egonaldiaz berba egiteko

Z.V.M.

Leonera joan ziren duela astebete Sorginak emakume taldeko hamabost lagun. Primeran pasa zuten, eta bertako aberastasun kulturala ezagutzeko parada izan zuten. Hala ere, joan ez zirenek hango egonaldiari buruzko kontuak entzuteko aukera izango dute.

Asteburuan, Gatzagako Sorginak taldeko hainbat lagun Leon aldera joan ziren. Martitzenean, berriz, bilera egin zuten.

LEONEN, PRIMERAN

Egubakoitzean irten ziren Gatzagatik bidaiari animatu ziren 15 emakumeak. Lau ordu eta erdiko bidaiaren ondoren, beraien jomugara iritsi ziren.

Hara iritsi, hotelera joan eta ekipajea utzi ondoren, hiriko alde zaharrerantz abiatu ziren. Afaltzeko asmotan joan ziren bertara, eta, horren harira, Leonen egon ziren gatzagarrek primeran jan zutela adierazi digute.

Zapatuan, Astorga ezagutzera joan ziren herriko *sorginak*. Bertan, El Castrillo de los Polvazares bisitatu zuten. Monumentu historiko izendatutako tokia da Astorgako txoko hori. Bertan egon zirenek adierazitakoaren arabera, "han egon ginenean Erdi Aroan geundela zirudien, oso ondo zaindu baitituzte Maragatoen garaiko eraikinak. Hala ere, primeran uztartu dute gaur eguneko arkitekturarekin".

Bazkal orduan, bertako jaki tipikoa dastatu zuten: maragatoa, hain zuzen ere. Lapikokoak osagai asko ditu: garbantzuak, zankarroia, urdaiazpikoa, arrautza... Behin sabela beteta, nork bere kabuz Leon ezagutzeko aukera izan zuen.

Domekan, gidari baten laguntzarekin, Leongo monumentu esanguratsuenak ezagutzera joan ziren. Pare bat orduz aritu ziren lekuak bisitatzeko: katedrala, jaurregiak... Toki askotan egon ziren.

Leon atzean utzi eta herriko emakumeak Burgos aldera joan ziren, arratsalde pasa.



Leonek eskaintzen duen aberastasun kulturalaz gozatu zuten bidaiari.

MARTITZENEAN, BILERA

Baina esan bezala, asteburuko bidaiari ez ziren Gatzagako emakume taldeko kide guztiak egon.

Horregatik, martitzen iluntzean bilera egitea adostu eta herriko

Astorgako Castrillo de los Polvazares ondo zaindutako monumentu historikoa da

sorginak bildu egin ziren. Bertan, datorren martitzenean, hilak 18, zerbait berezia egitea pentsatu eta afari-merienda egitea erabaki zuten. Bidaiako kontuak gainerrako kideei azaltzea eta datorren urteari begira ze asmo duten jakitea dute helburu.

Sorginak Emakume Taldearen elkarteak bilduko dira 20:30ak inguruan. Pasa den martitzeneko bileran, bakoitzak eraman beharreko jakiak adostu zituzten.

Hala, kide guztiak bildu eta, besteak beste, patata-tortilla, tarta eta ardi esnea hartzen duten bitartean, maiatzaren 7tik 9ra Leonen egindako egonaldiari buruz jardungo dute.



Gatzagako KZGunean, tutore iraunkorrik ez

KZGunean ez dago tutore iraunkorrik apirilaren 26az geroztik. Hala ere, gatzagarrek instalazioak erabiltzeko aukera dute; hori bai, Udalak erabakitzen du zein den horretarako ordutegia. Mintegi eta oinarrizko ikastaroak ematen jarraituko dute; gunean horien zerrenda ikus daiteke. Talde bat sortzean, tutore bat joango da; eta maiatzetik aurrera, hamabost egunean behin, astelehenetan, tutoreak zalantzak argituko ditu, 16:00etatik 20:00etara.

LABUR

Bilera egingo du Gatzagako Guraso Elkarteak

Gaur zortzi, maiatzak 21, Gatzagako Guraso Elkarteak bilera egingo du. Ez dute gai bakarra landuko. Besteak beste, ekainean Karrantza aldera egingo duten bidaiari zehaztuko dute: hasierako 34 lagunak doazen jakin, bidaiari planifikatzen ahalegindu...

Bestalde, uztailean udalekuak egingo dira, azken urteetan bezala, eta horri buruz hitz egingo dute egubakoitzean. Behintzat, bi begirale gura dituzte, eta bat ludotekako langile Ainara izango da.

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



MIRENTXU
TABERNA
Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Otala Zelai eguna



Hurreratu dadila jendea!
Maiatzaren 16an, domekan



Aretxabaletako
Udala

Goiena Telebista zuntz optikoan

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren eta Euskaltelen artean sinatu berri den hitzaremenari esker;
Euskalteleko bezeroa bazara, aurrerantzean, Goiena Telebista kablez ere ikus dezakezu

S11 katean (231.25 MHz)





SARRERA DOAN

Aste bukaerako plana zabal-zabalik

Zozketa

Bi lagunendako afaria
Diskoak
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93
UTZI MEZUA!

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

SARRERA DOAN
Laguntzaileak:
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster